

DIRU-SARRERAK

Diru-sarrerei dagokienez, “freemium” eredua erabiliko dugunez, aplikazioa deskargatzea dohainik izango da. Edukiko dugun diru iturri nagusia, behin deskargatuta zerbitzu gehigarriak edo “VIP” zerbitzuak lortzeko bezeroek ordainduko dutena da.

Harpidetzagatik ordaindu beharko dute bezeroek; aplikazio normalak eskaintzen dituen zerbitzuaz gain gehiago nahi badituzte harpidetu egin beharko dira. Ordainketa errepikarieretan ordaindu beharko dute, hilean 3,99€ eta hiru hilabetetan 10,99€. Honekin, bezeroek azalpenak irudi edo bideoekin jasotzeko eta 5 ariketa baino gehiago zuzentzeko aukera izango dute. Horrez gain, klase partikularrak ere eskaintzen ditugu, ordu baterako 9,99€ eta ordu erdirako 5,99€ ordaindu beharko dituzte.

Hasieran inbertsio bat egingo dugu aplikazioa aurrera eramateko. Inbertsio hori 1000-2000€-koa izango da, eta diru-sarrerak ditugun heinean, gehiago inbertitzen joango gara. Diru kopuru hori aurreztuko dugu beste lan batzuk eginez lau partaideen artean.